

2017

# BAKEA REN

## NAZIOARTEKO EGUNA



IRAILA  
ASTEAZKENA

20

### “BAKERAKO HITZAK”

*Poesia errezitaldi musikatua*

Barañain Auditorioa  
ORDUA: 19:30ean

Sarrera libre; aurrez hartu behar da gonbidapena. Gonbidapenak Barañain Auditorioko leihatilan har daitezke asteartetik ostiralera 18:00etatik 20:30era; eta baita saioa baino bi ordu lehenago ere.

Nafarroako  
Gobernua  Gobierno  
de Navarra

Irailaren 21ean **Bakearen Nazioarteko Eguna** ospatzen da. Nazio Batuen Batzar Nagusiak egun hau finkatu zuen bakearen inguruko ideiak sendotzeko. Aurten ere, 2017an, Nafarroako Gobernuak **irailaren 22an Tuteran** egingo den ekitaldi instituzional batekin ospatuko du egun hau. Ekitaldian **Federico Mayor Zaragoza** omenduko da bakearen aldeko kultura indartzeko egin duen lanagatik eta giza eskubideei, lurraren defentsari, indarkeriarik ezari eta bizikidetzari loturiko balore etiko eta demokratikoen aldeko bere konpromiso pertsonalagatik. Horregatik guztiagatik merezi du halako aitortza bat.

Gainera, Nafarroako Gobernuak poesia errezitaldi musikatu hau antolatu du bakearen aldeko kultura bultzatzeko duen konpromisoa bistaratzeko. Indarkeriarik gabeko gizarte anitz eta demokratiko bat eraikitzea du helburu, arazo eta desadostasunak elkarriketarekin, errespetuz eta elkarrekiko lankidetzan bideratuko dituena.

### TALDE ARTISTIKOA

Arte eta kultur adierazpide ezberdinetan (musika, literatura, argazkigintza, antzerki zuzendaritza eta jarduna, ikus-entzunezkoak eta telebista) jatorria duten zazpi lagunek osatzen dute talde artistikoa.

Oraingo honetan, hitzaren balioa lagun hartuta, gatazkaren, indarkeriaren, gorrotoaren, minaren eta bakearen etengabeko bilaketaren inguruko hausnarketa egin nahi izan dute elkarrekin. **“Bakerako hitzak”** proposamenak literatur testu eta poema ezberdinak biltzen ditu, baita ikuskizuna janzteko okasiorako prestatu diren zenbait musika pieza ere.

Taldea ziur dago argi-ilunez eta sentsibilite eta indar bereziz sorturiko saio honek “bakearen aldeko kultura” bultzatzen lagunduko duela.

**ERREZITATZAILEAK:** Carmen Nadal, Paco Ocaña, Fernando Eugi eta Alfonso Segura.

**MUSIKARIAK:** Alicia Griffiths, Ekhi Ocaña eta Urko Ocaña



### “BAKERAKO HITZAK” POESIA ERREZITALDI MUSIKATUA

ANTÍGONA. MONÓLOGO DE EURÍDICE. **Paco Ocaña.**  
LA EDAD DE LOS MISILES (fragmento). **Félix Grande.**  
AUSCHWITZ. **León Felipe.**  
LA GUERRA. **Miguel Hernández.**  
SENTADO SOBRE LOS MUERTOS. **Miguel Hernández.**  
TRISTES GUERRAS. **Miguel Hernández.**  
EL CRIMEN FUE EN GRANADA. **Antonio Machado.**  
A UN POETA MUERTO (fragmento). **Luis Cernuda.**  
HUBO UN TIEMPO. **Ibn Arabi.**  
LA PAZ POR TI. **Rafael Alberti.**  
SONREIR CON LA ALEGRE TRISTEZA DEL OLIVO. **Miguel Hernández.**  
PALOMAS. **León Felipe.**  
ESPAÑA EN MARCHA. **Gabriel Celaya.**  
PIEDRA Y PUEBLO. **Gabriel Aresti.**  
DEFENSA DE LA ALEGRÍA. **Mario Benedetti.**  
NO MÁS PATRIAS, NO MÁS BANDERAS. **Blas de Otero.**  
PIDO LA PAZ Y LA PALABRA. **Blas de Otero.**  
LABOR. **Blas de Otero.**  
RECONCILIACIONES. **Mario Benedetti.**  
NO, NO QUIERO EL ESPEJO. **Federico Mayor Zaragoza.**  
LA ORACIÓN. **Luis García Montero.**